

## ARANTZEN USAINA

Ihintza Erremundeguy, 15 urte

*Baiona*

Goiz hartan ere, eguzkiak bere distiraz itsutu aintzi amak iratzarria zuen Ainhoa. Jeiki eta aho zabalka ari zela ispiluari begira gelditu zen istaño batez. Ohetik atera berri zen sei urteko neska txiki bat zeukan begira. Ile luze koarpilatu haien tartetik bi begi haundi besterik ez zuen ageri; urduri zirudien, nahiz eta egunean zehar zer egin behar zuen argi ta garbi jakin. Begi beltz haiek jaurtitzen zuten indarrak haurraren borondate ona isladatzen zuten. Lasto izpia baino finagoa izan arren, haren zango ahulek izugarrizko beldur, arazo eta penen zama zeramaten, etengabe.

– Gosaltzera! –oihu egin zion amak sukaldetikan– berandu gabiltza!

Sukaldera iritsitakoan amak bidaiak zenbat iraungo zuen abisatu zion, eta aspertu ez zedin, aitari oparituko zion marrazki bat egiteko aitzakia-ekin, orriak eta margoak hartzea aholkatu zion. Aita Parisen preso zuen, oraindik oso argi ez zuen arrazoi bategatik, amak usu azaldu izan arren.

Geltokiara iritsitakoan, trena berandutu zela abisatu zituzten eta orduan gela isil hartako gune batean eseri eta zain gelditu ziren. Han zeuden jarleku gehienak hutsik zeuden hain segur oraindik oso goiz zelako. Pareta zuriaren goialdean urrunera distiratzen zuten argi berde ugariz ordua adie-

razia zegoen bi iragarki pankarta erraldoiez ingur-  
ratuta. Noizbehinka, kanpoko ibilgailuen burrun-  
ben oihartzunak belarrietara heltzea, logura uxat-  
zen zion. Batzutan ere, kanpoan hainbat zuhaitzen  
hostorik gabeko adar ugariak inarrosiz arrabots  
beldurgarri bat eragiten zuen haize freskoak, sarre-  
rako ateko zirrikitutik lerratzea lortu ondoren  
Ainhoarengana heltzean halako hotz-ikara izoztu  
batez gorputza zeharkatzen zion. Oraindik gaua  
zen eta leihotik izar ugari ikus zitezkeen beltzez tin-  
datutako zeru amaitezinean. Haurra marrazki bat  
egiten ari zela, soinu goxo batek gela hartan nagu-  
sitzen zen isiltasun pizua eten zuen. Ahots xume  
eta apal batek lagundurik, kantu triste baten antza  
hartu zion nahiz eta hitzak ez ulertu. Poliki-poliki  
burua itzuli eta gizon zahar bat begiztatu zuen hau-  
rrak gitarra eskutan zuela, begiak itxita, berak  
abesten zuen kantaz gozatuz. Pentsaketan ari zela,  
aita jin zitzaion burura; irrikitan zegoen ikusteko.

Bapatean hots ozen batez, trenak bere sarrera  
egin zuen. Amak alaba eskutik heldu eta pauso era-  
bakior batez aintzina jo zuen bitartean, Ainhoak  
eskalearen ondotik pasatzean deboraldi labur  
baina atsegin hartan egin marrazkia eskeini zion.  
Hark esku beltza zuzendu eta, irudiari so egin  
ondoan, irriño batez erantzun zion. Konpartimen-  
dura heltzean jende gutxi zegoenez, ama alabak  
parez-pare jarri eta hizketan hasi ziren, bidaia luze-  
egia egin ez zedin. Ez zen lehen aldia aita bisita-  
tzera zihoala, baina espetxean pentsatzearekin  
bakarrik urdaila korapilatu egiten zitzaion.

Nahiz eta gutxi ikusi, usu elgar idazten zuten. Gehienetan, marrazkiak bidaltzen zizkion Ainhoak, idazten eta irakurtzen ikasten hasi berria baitzen. Peiok maitasunezko esaldi goxo batzuez gutun hunkigarri bat erantzuten zion. Hitz xume horiek ez zuten inor harritzen, betidanik jaioa izan baitzen horrelako gauzentzat. Izan ere, oso hizkera zaindua zuen. Lanbidez irakasle izanki, ele eder bat ikasi ahal izan zuen, denboran eta geroztik frango praktikatzen zuena. Bera baino haundiagoko bihotza zuen; baina barren-barrenean gordezen zuen inork zauritu ahal ez izateko. Ongi baitzekien kristalezko bihotz minbera hori behin hautsiz gero, zatiak berriz eranstea ezinezkoa zela. Handia izan arren, ez zuen bere alturari zegokionaren erdia ere pisatzen. Alabari muxu ematen zion bakoitzean, kilima goxo batzuk egiten zizkion bizar luzeaz. Ipuin asko kondatzen zizkion, eta anitzetan altzoan lo hartzen zion amets goxoetan murgilduz.

– Trein numero 18.390. Le voyage est terminé. Nous arrivons à l'arrêt terminus, il est priez à tous les passagers de descendre du train.

Ama salto batez esnatu zen tren gidariaren erranak aditzerakoan. Ainhoak ez zion ulertu, baina trena pixkanaka gelditzen zihoala ikusita, iritsi zirela pentsatu zuen.

– Iritsi gira. Ainhoa, bildu zure puskak zakuan, aita ikustera goaz!

Ibilgailutik jautsi eta geltokitik atera ondoren, hurbil samar zegoen jatetxeko jabe ezagunei

zakuak atxikitzeko eskatu zien amak. Handik hurbil zegoenez, oinez abiatu ziren presondegira. Beste alditan baino jende gehiago zegoen zain. Jonek, kezkatu aurpegia jarri zuen. Bere txanda iritsi zenean, amak paperak erakutsi zizkion zaintzailari, baimena emango ziolakoan; baina ukatu egin zion. Orduan ama zainetan zela oharturik, haurrak eskua eman zion lasaituko zelakoan. Sekula baino gehiago estutzen zion; lasaitzen bazen gaitzerdi. Frantsesez mintzo ziren biok ere eta ez zuten elkar tutik ulertzen.

Bapatean, berataz mintzo zirela ohartu zen. Ama oihuka ari zen. “Elle veut voir son père”, errepikatzen zuen garrasika. Baina ahotsa aldatzen ari zitzaien, kosta egiten zitzaion hitz batzuen ahoskatzeari. Ainhoak, oso urduri zegoenez, beste eskuaz besotik heltzen zion ihes egin ez zezan. Gizon gaiztoa hura ez zuenez ikusten ahal, amari begiratzen zion. Bere begi beltzak gorritzen, eta ezpainak aldiz hainbeste estutzearen poderioz ubeltzen hasiak ziren. Amaren begirada hiltzaileak ez zuen gizon gaiztoa beldurtzen, baina so garaile hura ahultzen zihoan. Supituki, betileen artetik lerratu zen malko lodi bat itxuri zitzaion masailean. Alabak ez zituen sekulan amaren begiak bustirik ikusi; ezin zuen gehiago jasan egoera hura. Gizon gaiztoa duela ordu laurden bat bezelaxe zegoen. Etorri ginenetik ez zuen atzamar bat ere mugitu. Zirudienez, amaren malko goibelek ez zuten ez haserretu, ez hunkitu; lehengo moduan begiratzen zion, lasai-lasai ezer pasa ez balitz bezala.

Berriro ere hitz egiten hasi zen, baina ordurako ama nigar zotinka ari zen. Bihotz gabe haren lasaitasuna jasan ezina zitzaion: bere jarlekuan eserita zegoen txiklearekin jolasean. Kolpez, Jone Ainhoa eskuetik tiraz erdi korrika abiatu ze. Gune lasai eta gorde batera iritsi zirenean han zegoen aulki batean jarri eta altzoan hartu zuen. Orduan, haurrak lepotik heldu eta muxu eman zion. Masaila-haserreek eragin berotasuna baretzen zuten malkoz bustia zen.

– Zer gertatu da? –itaundu zion–.

Ama indargabetua zen eta, ihardetsi baino lehen, bizpahiru aldiz arnasa sakonki hartu behar izan zuen.

– Paperetan tronpatu dira eta ez dute gure bisita markatu, hori dela eta seguruenik ezingo dugu gaur aitatxo ikusi; zaintzaileak arratsalderako xekatu zuela agindu didan arren.

– Amatxo, ez nigarririk egin, gizon gaixtoarekin haserretuko naiz eta sartzan utziko gaitu!

– Gauzak ez dira hain errazak, maitea, erantzun zion etsipen aire batez.

Jone nahiko umila zen. Bi begi beltzen isladan sufrimendu handia ageri zuen. Urteak zeramatzan bizitza astun hura segituz, nekeak alde batera utziz. Bere larru koloreak oraindik tristeago bihurtzen zuen. Txiki samarra zen eta fin-fina. Ez zen ezertan nabarmentzen, baina guttik menperatzen zuten abilidadea zuen: eskulana. Ikaragarritzko zaletasuna, afizioa zen. Egunero lana bukatu eta alabarentzat marrazki polit bat asmatzen zuen ikastolatik landa oparitzeko.

Bitartean, Peio zaindariaren zain zegoen bisita ordua zela erran ziezaion. Baina denbora aurrera zihoan eta denbora pasa pentsaketan hasi zen. Kartzelan, askotan norbere bizitza guztia erreparatzeko denbora ukaiten zuten. Zimentazko ohe gainean etzan, ohearen erdiraino ere iristen ez zen mihisi zikinaz estali eta orduan hasten zen gogoe-tan. Inon aurki ez zitekeen berotasun haren bila zelula heze hartan, pixkanaka bere etxea ikusten zuen, urrutian eta hurbildu eanean inguruko sailak ageri ziren. Hango lore sorta bat usaindu nahian azkarki usnartu eta gela itxi hartako kiratsa barneratzen zuen azken odol ttantta bulta baterako hoz-tuz. Aments, familiari pentsatzean egiten zituen amets luze eta gozoenak. Nahiz eta bi astetik bi astero bakarrik ikusi beti buruan zeraman. Egun hartan gainera etortzekoak zirenez urduri eta kezkatuta zegoen. Izan ere, bidaia luzea zen Peio bisitatzeko egiten zutena, bereziki Ainhoarentzat, "gai-xoak oso goizik ezagutu baitu heldu mundu gordin hau". Ordu erdi barru iritsi beharrak ziren. Hilabete bat iragan zen azken aldikotz besarkatu zituenetik. Sarritan idatzi arren, biziki urrun sentitzen zituen eta paper mutur horiek ez zuten inolaz ere haien gorputzeko berotasuna ordezkaten.

Hala ere, azken hamar urte hauetan, berotasun hori epeltzen hasia zela ohartu zen. Kaiola hartan txoriek ez zuten gehiago kantatzen; ez mututu zire-lako, baizik eta han erakatsi abestia kaiola bera baino itogarriagoa baitzen. Hamar urte jasan ondotik edozein gauza erraz egiten da, beste hamar suportatzea izan ezik.

Jada ordu, bete zeraman zain eta arazoren bat zegoela oharturik, arduradunetariko batengana jo zuen:

– Nire izenean etorri al da baten bat?

– Zein da zure izena?

– Urretabizkaia.

– Ez.

– Seguru? ... Errana zidaten gaur jitekoak zirela.

Peiok ez zuen entzundakoa sinetsi nahi, Jonek ez zuela sekula huts egiten baitzekien, ez behintzat abisatu gabe. Alabaina, pareko gizona ez zen hori ulertzeko gai, ez zuen sentimendurik hesiaren bestaldean zeudenentzat, ez zuen ulertu nahi.

– Nik ez dakit zuri zer errana zizuten, baina argi diotsut hona ez dela inor etorri. Eta irriño gaizto batez, agian zure emazteak aste bukaera guztiz zu ikustera etortzea baino ekintza interesgarriagoren bat atxeman du... a, a, a!

Hori entzutean, presoak eskumuturrak hertsitu eta lurrera begiratzuz lehengo bideruntz abiatu zen. Min egiten zion horrelako hitzak entzun beharrak, ez zuen onartu nahi egia izan zitekeela. Zelulara heltzean leihotik begira jarri zen. Udazkena gerturatzan ari zen. Zuhaitz ihartuak askatu zituen hainbat hosto lurrera zihoazen, poliki-poliki, kanpoko haize hegoarekin dantzan aritu ondotik. “Beste urte bat iragan duk”, erran zion bere buruari, egunen batean, hura ere, orbel meta horren antzera kate guztiak askatu eta aske sendituko zela amestuz. Baina denboraren trena geldirik zegoela iruditzen zitzaion. Hainbat irri eta nigarrez osaturiko

oroitzapenak eramán zituen bide amaiezin batetik desagertuz bide hari muga bat jarri zioten arte. Espetxeratu zutenetik, helmuga begien aurrean jarri eta harako zubia suntsitu zioten. Zulo hartan, ez zen ez egunik ez urterik iragaiten. Tren bidaiari zirenak ikusle bilakarazi zituzten. Bi burdinen artetik eguzkia jeikitzen eta urrunean desagertzen ikusi arren, izpiak ez ziren haren begietaraino helzen; ez zituen lau pareta hertsien artean preso zeudenen bihotzak berotzen. Kartzelako ataria iragan zuenean bere izaite eta arima kanpoan gelditu ziren, egun hartatik ez zen gehiago bere buruaren jabe, agindu edota mehatxu bidez mugiarazten zuten txontxongiloa zeukaten beien menpe. Hitzek nigar egin ahala, malkoak mintzatzen ziren; isiltasunean idortutako malkoak, oihartzunik gabeko hitzak. Begiak itxiz gero, segundo batzuez zorigaitzetik at eskapatzen zen, beste mundu batera, bihoztunen mundura. Baina zilo hartako aire hezeak bihotzeko sugarra itzaltzen zion. Itotzeke zegoen arnasa ez hartu nahirik; hartuz gero itoko baitzen. Era guztiz, pareta estu haien artean ez zen aire garbirik kabitzen; erdoildutako barren artetik iragaitean beroa, kiratsduna bilakatzen zen airea; betikoa.

\* \* \*

Gau ilun hartan izar bat zegoen zeru erdian, bihotz bat gorputz hil batean bezela. Peiok 10 urte zeramatzan zerua osorik ikusi gabe. Kartzelako barrek napa beltza zatitzen zuten xarma guztia



kenduz. “Iritsiko da eguna, non kalpar distiratsu horiek inguratuko hauten bien artean oztoporik egon gabe”, ari zen pentsaketan, “kaiola honetatik hegaldatuko haizena askatasunari buruz”, Bapatean, sakeletik familiaren argazkia atera eta hari begira, “bazenekite zenbat maite zaituztedan; izarrak zeru beltza baino gehiago argitzen duzue nire bihotza!” eta bakarrik iraun, “ezin duk egoera honetan jarraitu, hi ere pertsona haiz eta bizia merezi duk. Zeinek esan behar dik hiri non ala norekin bizi behar haizen? nork erabaki dezakek nor maitatu behar duan? Ez zagok eskubiderik! Aske bizitzeko sortu hintzen eta kateak jarri ditiate, baina azken aldi honetan familiari ere jarri zizkio-tek hi ikustera etortzen ez utziz. Gizon horiek zer ditek hik baino gehiago hiri halako tratu txarra emaiteko... ezer ez! Ezin duk horrela segitu, ihes egin behar duk” Begiak itxi eta ohe gogorrera bota zuen bere burua.

Biharamunean pentsaketan ziharduen. Ezinezkoa zen. Nolaz egin ziezaioketen halakorik. Gela hartako giro hilak pentsatzeko eragozten zuenez kanpora irten zen. Ez zen gehiago urrunean ikusten ziren mendiak begiratzeko gai, parean zuen paretari so zegoen luzaz. Zenbat neurtzen ote zuen? Bistaz, zerua ikutzen zuela zirudien, nahiz eta egun hartan zerua oso behera egon. Izan ere, behe-laino hark iduri zuen zeruak irentsi egin behar zituela. Patioan itzulika zebilela, lore bat aurkitu zuen bide erdian. Lore kontutan ez zen oso jakina eta ez zen haren izena emateko gai,

baina ikaragarri gustatu zitzaion. Hori-horia zen; egun hartan falta zen eguzkia ordezkaten zuen bere bihotza argituz. Txiki samarra, petalo ugari zituen, bata bestea baino kolore biziagokoa. Adartxoak, aldiz, arantza batzuk zeuzkan; lore hark jaurtitzen zuen indarra eta zoriona hunkiezinak bailitzan. Emeki-emeki, eskuetan hartu eta sudurrera hurbilduz usaindu zuen. Ez zuen usainik. Ulertu ezinik, berriz ere usnatu zuen baina deus ez. Lili eder horri ere barne honetara sartzean arima kendu zioten. Sustrairik gabeko landarea. Bapatean, arantza batek ziztatu zuen. Ximiko baten moduan min pixka bat egin zion baina ez zen odolik atera. Eriari begira zegoen. Bere baitan ohartu zen lore honi izaitea kentzeaz gain defentsak ere galarazi zizkiotela. Arantza haiek indargabetuak zeuden. Lurrean eser zen; errabiaturik. Peio ere ber maneraz zigortu zuten. “Biok etxe arrotz batean giltzapetu gaituztek. Hi oihanetik urrun eta ni familiarik gabe. Ezin diagu bakardade horretan segitu. Kanpoko eguzkiak hobeki argituko ditik gure bihotzak. Gezurra erran zidatek; bazekiat. Bart, goganbehartu diat iruzur egin didate. Alabaren urte betetzeak hilabete barru dituk eta egun horretan nire kontra eduki nahi diat; ez diat berriz ere egun hori huts egin nahi” ziharduen pentsaketan. Sartzeko ordua iristerakoan, kontu haundiz sakelean lerratu eta lehengo bidetik zelulara abiatu zen. Sarrarazi eta atea gibeletik gaketu ondoan, mahain gainean pausatu zuen. Bazkaltzen hasi orduko zaintzaile ezezagun batek zuzendaria-

rengana joateko agindu zion. Gelatik atera aintzin loreari azken begirada zuzendu eta irten egin zen.

– Peio, lege berri batek agintzen duenez, ez duzu gehiago familia ikusteko edota haiekin komunikatzeko eskubiderik. Gure kontu zure emaztea abisatzeari. Galderarik?

Peiok ez zion aurpegira begiratu ere egiten. Gorrotoak itsututa zeukan. Ezer erraiten ez zuela ikusirik berriz bazkaltzera bidali zuten. Eztarria samindurik zeukan eta ezin izan zuen ezer irentsi.

Duda gehiegi zeramatzan buruan; erantzunik gabeko galderak, arrazoinik gabeko kezkek. Pixkanaka bihotza zatitu ondoren zati bakoitza ebasten ari zitzaizkion, baina, aldi honetan ebatsiak izan arren, zati bakoitza lotzen zuten zainetako odola xurgatu zioten; familiarekin zituen harreman bakanak moztuz. Kartzelako isiltasun hura jasanezina zitzaion, baina hitz horiek aditzea baino nahiago zuen hala ere. Biharamunean, lagun bat libratzekoa zuten eta errana omen zioten kanpoko egoera penagarria zela. Peiok ohar hori entzutean, malkoak begietan, irriño egin zuen. Barrea eta nigarraren arteko zalantza. Seguruenik, hastapenean bere burua kanpoan aske ikusirik alaitasunak gainartu zuen, baina laster hodei hartatik jautsi eta hankak non zituen oroitu zen. Izan ere, urrezko kaiola baino nahiago zuen askatasun miserablea. Iritsi zen agurtzeko garaia, hainbat urtez gelako kide izan zuenak zeru amaitezina arnasa hartuko zuen. Bazihoala eta, Peiok eskutitz bat lerratu zuen bere sakelean zaindarien kontrolatu gabe familiari

eman ahal izateko. Bertan bere asmo zehatza argitzen zuen: ihes egitea. Nazkaturik zegoen arratoien konpainiaz, familia behar zuen, gainera aste batzu igaro zituen inoren berririk jaso gabe. Hori bai, laguntzaile bat behar zuen, bakarrik egiteko zail samarra “zeritzaiolako”, eta huts txikienak dena bertan behera erorrarazi zezakeelako. Konfiantzako adiskidea izanik, bazekien ahal bezain laster eskutitz hori bere emaztearen eskuetan izango zela.

Esan eta egin, astebete geroago Jonek, lanean zela, dei bat jaso zuen bere helbidea esktauz, eskutitza eskurra ziezaion. Arrats hartan berean sakelean luzaz egondako gutun zimurtua irakurtzeari ekin zion: “Iluntasun itogarri honetan arnasa falta dut. Gainera zuek ikustea galarazi didatenez, eskaipatzea erabaki dut. Laguntza txiki bat behar nuke norbait atxemaiteko, orduan aurki ezazu konfiantzako pertsona bat. Laister arte.”

Hau irakurtzean nigarrez hasi zen gaixoa. Ez zekien zergatik. Agian Peiok egin behar zuenaren beldurrarengatik edota, bestela, laister besarkatuko zuen esperantzaz. Emozioak iragan ondoren, berehala xeka hasi zen. Lagun askori deitu zien, baina denek zeukaten aitzakiren bat: batek denbora falta, besteak beldurra eta azkenak gogo eskasia. Hainbat adiskiderekin hitz egin zuen arrats hartan bertan, baina, ez zion inork baietzik eman. Hori zela eta, nekaturik eta amore emanda, lotara joan zen.

Biharamun goizean, Ainhua jada esna zegoen ama iratzartzera joan zitzaioneko Mugimenduak

jabetua zen. Amak umea zela kontuan hartu arren, berak ulertzeko gisan kontatzea inportantetzat jo zuen. Orduan, altzoan hartu eta erran zion:

– Beharbada ohartu zira atzo egunerokoa ez zen zerbait gertatu zela.

Alabak jakinmin haundiz begiratzen zion.

– Hau da, gizon bat etorri zen etxera eta gero dei ugari egin nituen. Gertatu dena zuri esplikatzeko zail samarra da, baina saiatuko naiz: gizon gaixtoek, zuk diozun bezela, aitari erran diote ezingo gintuela gehiago ikusi orduan erabaki horrekin bat ez zetorrenez, guregana etortea erabaki du. Baina, autorik ez duenez eta gu joan ezin garenez, honaino ekarriko duen norbait xekatzeko galdegin dit bart gizonak ekarri eskutitzean.

– Noiz etorriko da?

– Hilabete baino lehen etxean egotea espero dut.

– Bikain! Orduan, urtebetetzerako bi opari izango ditut aurten! –ihardetsi zuen Ainhoak, zoriona irrian–. Jonek, berriz, hasperen bat egin zuen, umeak ikusten zuen bezain erraz iraganen zela otoitz eginez. Eskolarako prestatu eta umea han utzi ondoren, lanera joan zen egun normal bat baiditza.

\* \* \*

Ahalegin ugarien ondotik, azkenean, aurkitu zuen laguntzailea. Aspaldiko lagun bat zen, Iñaki zuen izena. Lehen, harakina zen, baina, negozioak huts egin eta sukaldari hasi zen. Ostatu ttipi bat

zeukan kostaldean era irabaziak emendatzeko, jantegietara ere bidaltzen zituen bere "platoak". Langilea zen, borondate onekoa. Aspalditik ziren lagun bera eta Peio; beti konpondu izan ziren ongi. Gizon mardula zen. Nahiko txukuna. Azken urteotan brurusoila izan arren, gaztetan ile horia izandakoa zen. Berrogei urteak ondo pasata zeuzkan, baina, kirolaria zenez, ez zitzaion antzematen. Errealako jarraitzaile sutsua zen eta futbol partiduetan ez zen isildu ere egiten epaileari txistuka. Ezkonduta zegoen; ez zeukaten umerik. Horregatik, Ainhoarekin oso harreman hurbila zuen. Ikusten zuen aldi oro, opari bat eskaintzen zion eta umeak bere aldetik bere txiste txarrekin kristoren algarak eta parreak egiten zituen. Idoia bere emaztea, aldiz, nahiko idorra eta isila zen. Ez zuen senarraren umorea gustuko eta, istorio irringarri bat kondatzen hasi orduko, begirada gaizto bat zuzentzen zion isilarazi arte.

Egun pare baten buruan, beraz, elkartu ziren eta bien artean plano zehatz eta maltzur bat asmatu zuten. Inākik publizitate bidez kartzelako zuzendaria bere janaria eskatzeko erakarriko zuen, prezio merkea eskainiz. Horrela, astero platoak eramatera presondegira joanen zenean Peiorekin komunikatu ahal izango zuen eta, dena prestatu ondoren, biak irten egingo ziren. Aste bete geroago kontu haundiz idatzitako propaganda bidali zuen eta bispahiru egun ondotik interesatuak zirela zihoen eskutitz bat jaso zuen. "Ergel halakoak, besteak baino maltzurragoak zinetelakoan", pentsatu zuen,

martxa horretan azkar engainatuko zituela ohar-tuz. Denborarik galdu gabe, jarraian erantzun zien prezio merkean janari ona proposatuz. Bazekien oso mesfiatuak zirela eta haien konfiantza irabaztea zaila izango zela. Onartu beharra zegoen arrisku batzu hartzen zituela laguna libratzeko; beraz, nahiago izan zuen emaztea abisatzea.

– Nolaz bururatu zaizu horrelakorik, laguna sabaltzeko zure burua arriskatzea ere!

– Idoia, badakit kolpean jakin eta horrela erantzutea normala dela, baina, lasai zaitetz dena kontrolpean daukat eta ongi aterako da.

Bestaldera begiratu eta beti egin zuen bezela baxerak eginez bere kontuak xuxurlatzeari ekin zion. Senarrak ez zion kasurik egin pasako zitzaio-lakoan.

Lau egunen buruan hitzordu bat zeraman gutuna jaso eta berehala Joneri hots egin zion. Elgarrekin bere itxura hobetu eta kartzelara joateko prestatu zen.

Hara iritsitakoan, berehala mila galdera pausatu zizkieten; biri erantzun eta sartzen utzi zuten. Sukaldean sartzean, jestu bortitz edo errezelagarri-rik egin gabe jateko prestatzen hasi zen. Ordu erdi pasata, presoak iritsi ziren. Bata bestearen atzetik, ilaran, pauso mantso batez hurbiltzen ziren. Sukaldariaren parera heltzean, ez zuten begiratu ere egiten. “Bonjour” batek beren gorputz hila berpiztu ondotik, segidan murgiltzen ziren beren mundura. Denek ahots berdina zeukaten, denok keinu berdinak errepikatzen zituzten, sehi urrikal-

garri batzuen gisan. Denbora joan ahala, Iñaki ere beti-bateko gupil hartan hasi zen itzulika. Azieta bat hartu, eltzetik burruntzalikada bat bota eta eman. Jada berrogeita hamar aldiz errepikatu zuen. Ez zien gehiago aurpegira begiratzen, denak berdinak zirela aurreikusiz. Ia-ia automatismo bat bihurtzen ari zen, parekoak delako “Bonjour” hura erran ez zion arte. Hitz horren zain zegoen platera hartu eta betikoa egiteko; baina ez zuen aditzen. Errota itzulika ari zen oraindik ere eta han segitzea errezagoa zen geldiaraztea baino. Parekoa isilik zegoen, geldi. Zerbitzariak poliki-poliki burua altxa eta “P...” hasi zen; “plat s’il vous plait!” erranez disimulatu zuen.

Peiok zuzen begiratzen zuen. Emozioak ez zion irriño bat egiteko indarrik ematen. Iñaki, aldiz, geldi egon ezinik, oihal baten bila joan zen. Harmar urte iragan ziren, bien artean plater bat bakarrik egonik, elkar ikusi zutenietik; beti orbainez estalitako berin zikin hura zehatzten zuen giegrada beste urutzatzeko. Itzultitakoan, lagunak hobeki zirudien. Jana eskeini eta gibelegoari tokia libratuz, joan zen gizona, zerbitzaria bere lana egiten utziz.

Iñakik etxera sartzean, Jone deitu zuen dena ongi iragan zela eta senarra osasuntsu zuela jakinarazteko. Lehen egunetan elgar ikustearekin nahiko beharko zuten, zuzendaria harrera ona egitaren zain baitzegoen.

Biharamunean, bezperako jarduera bera praktikatzera joan zen eta Peioren txanda izan zenean



plastifikatutako paper bat zopan kukutu zuen. Honek han idatzita zegoena irakurri, emeki-emeki estali eta sukaldariarengana eramane zuen hotza zela kexatuz. Iñakik labean sartzerakoan papera sakelean lerratu eta azieta itzuli zion. "Urriak 5". Hitz hark zioenez, astebete barru. Eguna finkatua zen.

Zelulara joan aintzin kanpora itzuliño egiteko posibilitatea baliatuz, aire pixka bat hartzea erabaki zuen. Eguraldi freskoa zen. Gorputzaz dardarek nagusitu zitzaizkion. Egun gutxi barru hamar urtez zapaldu ez zuen lurra hunkituko zuen. Lur maitea. Zelai hartan ibiltzeak oinak bigundu zizkion; bere etxegaineko aldapa igotzeko gogortu beharko zituen. Baina ez zuen gehiago dudarik, familia sano zegoen; Iñakiren begietan igarri zuen. Egunak joan arau, kanpora joaiteko irrika haundiagoa zuen. Abiatze egunarentzat bi gau falta zirela beren estrategia egokia zela pentsatu eta ihes egiteko prestatu ziren.

\* \* \*

Bazkalondoan Peiori tokatzen zitzain jangela garbitzea. Erratza pasatzen ari zen bitartean, zaindari bakar bat zegoen. Iñaki kexaka ari zen. Tarteka, hitz larri batzuek bere haserrea azaltzen zuen, zaindariaren begirada erakarriz. Itxurak egiten momentu bat pasa ondoren, zaindariari hurbildu zitzaion.

– Ez da posible, jantegi zikin honetan ez al dago baxerak egiteko ere xaboirik? –sukaldariak kexaka–.

- Ez dakit. Galdetzera joango naiz.
- Galdetzera... xaboia eta zuzendariaren esplikaziorik jaso aintzin ez etorri honera!
- Zuzendaria ez da hemen.
- Bada, xaboia nahi dut.
- Berehala. –xuxurlatuz erdi korrika abiatu zen eskatutakoaren bila–.

Izan ere, zaintzaile gizajo horiek hain ziren galduak, non edonoiz oihuka has zitezkeen bezala edonork oihu eginez gero, umil-umilki obeditzen zuten. Bitartean, ordura arte isilik zirauen Peio sukaldeko zakarrontzian sartu zen. Iñakik usteltzen eduki zituen zaborrak nahastu eta zaku batean sartuta gainera bota zizkion. Ezer pasa ez balitz bezala, kanporako bidea eraso zuten, gizon urdinek kontrol baterako gelditu zuten arte. “Miaketa!”, garrasi egin zuen.

Iñakik lasaitasun osoz utzi zien bere gorputza miatzen. Zakarrontziari tapa kentzean ordea ikaragarriko usain txarra zabaldu zen gelan, orduan berehala hetsi zuten “pasa, pasa” erranez zaborren kiratsa uxatu nahian.

Hori entzun eta, pauso mantso batez aintzinatu eta atea bere atzean hertsi ahala martxa bizitu zuen. Kamionetan sartu eta momentu batez gelditu egin zen, motorra piztu arte. Hots monotono hura moztearren, aldizka azeleradorea zapaltzen zuen. Poliki-poliki ibilgailua aurrera zihoan. Lehen bidegurutzea iragan eta aparkaleku batean gelditu zen. Atzekaldera joan, zakarrontziko tapa ireki eta barneko zakarrak atera ondoren, lagunari besoa luzatu zion. Pei geldirik zegoen, begiak itxita, isilik.

- Lasai, pasa gaituk, atera hadi kutxa horretatik.
- Seguru? -itaundu zion urduri-.
- Baietz, gizona!

Zutitu eta alde guztietara begiratu ondotik Iñakirengana hurbildu eta luzaroan besarkatu zuen. Istaño bat geroago berriz abiatu ziren. Peio atzean geratu zen bada ezpada ere. Iñakiren egoitzara iritsitakoan Peio kotxean gelditu zen zain, laguna etxera zihoan bitartean. Familia berehala etortzekoa zen; sorpresa gisan. Adiskidea urrundu eta segundu batzu geroago Jone ikusi zuen berinetik. Supituki, Ainhoa iritsi zen korrika.

- Aital, erran zion besoetara salto eginaz.

Segidan, Jonek besarkatu zuen.

- Zenbat denbora elgar ikusi gabe! Ezin dut sinetsi! Ainhoa, zenbat haunditu zaren!... eta nik denbora guzti hau huts egin izana; lotsagarria da.

Ainhoak barkatzeko muxu bat eman zion. Bitartean, Iñakik etxe atarira iritsi eta txirrina jo zuen. Nehork idekitzen ez zuela ikusi eta, bere giltzekin ideki eta sartu zen. Gakoak beren tokian uzterakoan, hots arraro bat entzun zuen logelan eta zerena zen ikustera joan zen. Atea ireki zuenean Idoia ikusi zuen presaka ohetik ateratzen; bitxia iruditu zitzaion.

- Lortu dugu, kanpoan dago familiarekin. -erran zion pozez-.

Emazteak beti bezain idor jarraituz, ez zion erantzun. Denbora berean, Peio hitz gutxiz adierazten zuen emozio azkarra sentitzen ari zen.

– Urtebetetzerako opari bat ematen badidazu, etxean egon zaitezten konponduko naiz, –erran zion alabak arazo guziei konponbidea ateratzen zien moduan.

Orduan, aitak sakeletik lorea atera zion. Denbora luzea zeraman han eta ez zen kartzelako patioan aurkitu zuenean bezain ederra. Umeak eskutan hartu, sudurrera hurbildu eta azkarki usainduz:

– Zein usain ona duen! Badirudi luzaz kontserbatu duela gero niri eskeintzeko!

– Halaxe da, halaxe da, maitea.

Idoiak nekatua zen aitzakiaz ez zuen ongietorria egitera joan nahi izan, beraz, senarra bakarrik joan zen.

– Betiko gurekin aitatxo, bai?

– Lore horrek usaintsu dirauen!

Ahots goxo hark denak itsututa zeuzkan. Iñakik urrundik aditzen zuen eta umeari kondatzeko txistea asmatu nahian zebilen. Baina, bere kamioneta aintzina hertzean ezusteko dekorazioak harrapatu zuen. Bi kamioneta zeuden. Bata berea; beste arrotza. Lau pertsona zeuden; lauak ezagunak. Baina, laugarrenaren presentzia ez zen ohikoa: kartzelako zuzendaria zen. Hortxe zegoen tente, harro, Peioren eskumuturrak lotzen ari. Adiskidea zur eta lur gelditu zen, zer egin ez zekiela. Joneri, aspaldiko partez alaitu ziren begi beltzetatik malko bakar bat ixuri zitzaion; bakarra eta soberan. Ainhoak aitari peiak lotu zizkiontena, er txiki haiek finki eusten zuten lorea askatu zuen. Sartu

zuten atxilotua kaiolan, moztu zizkioten hegalak. Eta amidlegk bidea lorea ere zigortu zuten errota astun haiekin zapalduz. Biek arima galdu zuten eta bide beretik desagertu ziren; datorren udazken batez hostoekin batera hegaldatzeko asmoz.